

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko abenduaren 21a
327 zenbakia, 24. urtea



Giza eskubideen alde lanean

Herrira taldekoak euskal presoen eskubideak bermatzea eskatzen dute. Oinarrizko giza eskubideak urratzen zaizkiela salatu dute besteak beste.

05

Orioko kontuak
Oriako itsasadarra

10

Aiako elkarrizketa
Edurne Albizu

21

Iritzia
Apostuak: Iñaki Oliden

+

Erdiko gehigarria
19. Euskaraz Gazte lehiaketa

PUBLIZITATEA

Emakume eta gizonen berdintasun benetakoak mundua alda dezake, gizarte osoaren hobe beharrez.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna**
egiteko asko
www.berdintasuna.tv



**ZEU ZARA
PROTAGONISTA**



Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
info@zornotzakobarnetegia.com
www.zornotzakobarnetegia.com
Tel.: 94 630 83 04

Benito Lertxundiri Orion jarriak

1

Berrogeita bost urte badira bere kitarraren jabe azaldu zela, traiectoria hain luzeak gutxi daude, hamaika aldiz ikusi degu tabladutan parez pare. Benito degu gizon arrunta, ta erakutsi du hala're bat temosoa izan leike egoskorra izan gabe.

2

Gu jaió giñan garaierako jada ziran sonatuak bere hitzak ta bere doinuak, jendeak bere hartuak, urteek egin dute aurrera ta oraindik onartuak. Eman zizkigun Xibero urruna ezagutzeko datuak, bertsolaritzai doinuak eta gure lurrari kantuak.

3

Berak landu dun estiloa ta berak sortu dun eskola, mamia ere gainezka duna ezpaita soilik eskola. Daukagun zorra kitatzerikan ez tet espero inola, urte mordo bat dauzka aurretik jarraitu dezala hola. Gaur jaso duen *argizaiolak* argi egin dezaiola.

4

Oi Nafarroa eta Baldorba aparte ezin da utzi, *Oi Xiberua, Ama Euskal Herri* berak zigun erakutsi. *Nere herriko neskatxa maite ta Urrundik heldu naiz* eutsi. *Itsasoari begira* gero ta *Mirotzak* ezin ahantzi. Euskal Herriai asko eman dio, naiz matrimonio on bat hautsi.

327

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
20810 Orió
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarteá**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegí,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga,
Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola,
Joseba Orella
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak

Maddi Altuna,
Ibai Esoain,
Iñaki Oñiden
eta Ainhoa Zumeta.

Laguntzaileak

Iñaki Iturain
eta Xabier Sukia

Diseinua

Danel Agirre
eta Karkara taldea

Banatzaileak

Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orió)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orió)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremán daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



LUIS JAUREGIALTZO

PUBLIZITATE PREZIOAK**Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Bi dokumentu, bi txapuza

Egungo egoera ulertzeko, herriko hiri-gintza-planen historiko bat egin beharra beharrezko ikusten du Orioko Bilduk. Historikoa luzea da eta hanka-sartzez betea.

Lehena arau subsidiarioen arazoa izan zen. Herriaren antolaketan oinarritzko dokumentu dira arau subsidiarioak; menpeko dituzte beste plan guztiak –Muntoko Plan partziala, esaterako– eta bertan zehazten dira etorkizuneko proiektu guztiak. Duela hamabi urte hasi zen Orioko Udala dokumentua idazten. Gatazkatsua izan zen prozesua eta zenbait herritarrek parte hartzeko aukera handirik eman ez izana leporatu zion EAJri. Haratago, partikular batek Orioko arau subsidiarioei helegiteak jarri zizkien bideragarritasun ekonomikoaren ikerketarik atxikita ez zutelako. Auzitegiak arrazoi eman zion herritarri eta EAJ alderdiak diseinatutako arau subsidiarioak balio gabetuak izan ziren. Egoera larriari aurre egiteko, arau subsidiarioen dokumentua baztertu eta Plan Orokorra lantzen hasi ziren. Aurreko dokumentuaren kalko bat zen, baina beharrezkoak ziren dokumentu guztiak zituen, halako batean. Hamabi urte geroago, Bildu eta Orain gobernuan direla onartu da Plan Orokorra. Hau da gaur egun indarrean dagoen oinarritzko hiri-gintza dokumentua.

EAJ alderdiaren bigarren txapuza Muntoko plan partzialarena izan zen. Hiru helegite sartu zaizkio guztira: Plan Partzialari berari, errepartzelazio proiektuari eta Eroskiren azalera barne duen B5 partzelari. Lehenengoa behin betirako balio gabetu du epaileak eta iturri juridikoek ia segurutzat ematen dute beste biak ere modu berdinean balio gabetuak izango direla. Zein ote da Plan Partziala balio gabetzeko arrazoia? Azterketa Hidraulikorik ez dela egin eta dokumentua jendaurrean ez dela jarri. Izan ere, Beñat Solaberrieta buru duen gobernuak jarri du jendaurrean Plan Hidraulikoa. Eta bada beste datu garrantzitsu bat: Auzitegiaren erabakia Arau Subsidiarioen baitakoa izan da. Gaur egun, ordea, ez arau subsidiarioak ezta Plan Orokorra ere ez daude indarrean.

Hasteko, atzera begira jarrita, konturatzan al zarete, bi plan, nagusia eta menpekota, biak atzera bota direla, hanka sartze berarengatik biak? Beharrezko dokumentuak aurkeztu ez direlako. Arduradun politiko bakarra: EAJ. Ondorioak nabarmenak; Udalarentzat eta herriarentzat: segurtasun juridiko eza, Orioko Udalak arazoak zuzentzeko gas-tatu duen dirua eta denbora. Hori ez da

serioa. Herriko eragileekin konpartitu gabe, prentsa lagun hartuta aritu da EAJ hamabi urtetan. Azkar eta ondo, usoa hegan.

Ondoren, aurrera begira: zergatik onartu ditu bi planak Orioko Bilduk? Herentziaz jaso dugun egoera tamalgarririk horren aurrean, alderdi interesen gainetik, Udalaren egonkortasuna lehenetsi dugu. Historia tamalgarriaren ostean, Orioko Udalak aurrekontuetan eta ordenazioan oreka izan dezan lanean ari gara Orioko Bildun. 2012ko aurrekontua orekatu ahal izateko ezinbestekoa da Muntoko Planean eraikitzeko falta den partzela pribatuaren lizentzia ematea. Ez balitz hori gertatuko Espainiako Gobernu berriak onartutako *Ley de Estabilidad Presupuestaria*ren baitan, Orioko Udala esku hartuta geratzeko arriskuan legoke. ■ **Orioko Bildu**

Diario Vasco eta EAJ

Orain Herri plataformatik *Diario Vasco* rengandik jasaten ari garen tratua salatu nahi dugu; Orioko EAJkoen gutuneketa geure gutunek jasaten duten tratu desberdina, alegia.

Gure idatziek mota guztietako moldaketak jasaten dituzte: izenburu aldaketak, testua osorik ez inoiz, beti zatikatu-ta, bestelako interpretazioetara bideratutako komentarioak... Aldiz, EAJkoak oso-osorik eta inongo interpretaziorik gabe argitaratzen dituzte. Beren *Facebooke*an dauden bezalaxe, hitzez hitz.

Udal gobernua erasotzeko erabili duen EAJk *DV*, joku horretan sartzea gustuko izan ez arren, zenbait azalpen ematera derrigortuta sentitu gara. Horregatik gure azkeneko idatziak jasan dituen moldaketak eta tratu desberdintasun garbia ikusirik, KARKARA eta beste zenbait hedabide erabiltzen jarraituko dugu; baina ez *DV*.

Argi dugu gurea bezalako herri plataforma txiki batek ezer gutxi egin dezakeela horrenbeste botere duen talde baten aurrean, baina oriotarrek, behintzat, jakin dezatela nolako bitxikeriak gertatzen diren gure herrian. ■ **Orain herri plataforma**

EAJ 2012ko kontuekin kezkatuta dago

2012ko aurrekontuek daramaten garapenak EAJri eta Orioko Udaleko idazkari-kontu hartzaileari arrazoia ematen dio:

2012ko otsailean, Orioko Udaleko aurrekontuak onartu aurretik, EAJk aur-

keztutako kontuetan, sarreren atala puztuta zegoela salatu zuen eta aurrekontu horien gauzatzeak udaleko kontuetan deskuairea ekarriko zuela. Horren guztiaren aurrean Bilduk aurkeztutako aurrekontuen gaineko txostena prestatzeko eskatu zen. Txostenak EAJk azalduriko kezkak azpimarratzen zituen, eta, horretaz gain, sarrera eta gas-tuen arteko desbiderazioa milioi bat eroren ingurukoa izango zela azaltzen zuen.

Lehenengoz, Orioko Udalean, idazkari-kontu hartzailearen kontrako txostena zeramatzaten aurrekontuak onartu ziren. EAJk bere garaian salatu zuen kontu hori, argi geratzen zelako betetzea ezinezkoa izango zen aurrekontuak zirela.

Egun batzuk falta dira 2012a amaitzeko eta EAJren susmoak bete egin dira. Izan ere, Udalak Bilduk uste baino %20 gutxiagoko sarrerak izango ditu. Sarre-rik izandako beherakada horiez gain, egin diren inbertsioetan ia diru laguntzak ez dela izan gehitu behar diogu. Ondorioz, udaleko tesoreriaren remanentearen kontura egin dira obra horiek; hau da, aurreko urtetan aurreztutako diruaren kontura. 2012ko aurrekontuetan sortzen den desfase honek 1,5 milioi euro suposatuko ditu.

Udaleko kontuak pairatzen ari diren okerreko bide azkarraren aurrean EAJ kezkatua azaltzen da. Egia da oso zaila dela %100ean aurrekontua asmatzea, baina ahalik eta errealistena izatea da gure erantzukizuna. Guztiz arduragabea da jakinik hasieratik beteko ez diren dokumentuekin lan egitea. Nori jo nahi diote adarra? ■ **Orioko EAJ**

Erregeak badatoz

Kaixo, haur eta gazteak. Urtero bezala, Errege Magoei ongi etorria egiteko panderoak, danborrak eta barrikak astindu behar dira. Horretarako, parte hartu nahi duten sei urtetik gorakoei izena hartuko zaie abenduaren 21ean, 19:00etan, Ikastolako pergolan. Lehen entsegua, berriz, abenduaren 26an, 19:00etan izango da.

Bestalde, 18 urtetik gorako herritar guztiak animatu nahi genituzke sokari eutsiz eta zuzia eramanez, kabalgatan parte hartzera. Nahi duen edonork izena eman dezake egun, ordu eta toki berean. ■ **Talai Mendi M.E.**

20. orrialdean jarraitzen du

Babes bereziko eremu izendatu du Jaurlaritzak Oriako itsasadarra

Eremu horren baitan dago Motondo ingurua eta hango padurako habitat naturala berreskuratzeko proiektua egin du Aranzadi Zientzia Elkarteak Oriako Udalaren eskariz

Babes bereziko eremu izendatu berri du Eusko Jaurlaritzak Oriako itsasadarra eta, ondorioz, baita Motondo ingurua ere. *Dekretuaren helburua, eremuko habitat naturalak mantentzeaz eta berreskuratzearaz gain, etorkizunean bermatzeko neurriak hartzea* dela dio Oriako Bildu udal taldeak.

Bere balio ekologiko aberatsagatik 2003an izendatu zuten Oriaren itsasadarra Garrantzi Komunitarioko Leku -GKL- Europako Natura 2000 sarean. Bilduk azaldutakoaren arabera, *2010ean Eusko Jaurlaritzako bioaniztasun sailak, balio horiek aztertzen hainbat urte egin ondoren, prozesu parte-hartzailea abian jarri zuen eta han parte hartu zuten Herri natura taldeak, Oriako Surf taldeak eta Oriako bi zinegotzik. Iazko urte hasieran kontserbazio bereziko eremua izateko proposamena aurkeztu zuen Jaurlaritzak eta 18 hilabeteren ondoren izendapena eman dio.*

Berreskuratzeko dirulaguntza

Oriaren itsasadarrean dago Motondo. GKL izendatu ondoren eta Udaleko ingurumen batzordeak hala eskatuta -hainbat aditu eta natur talderen laguntzaz-, eremua berreskuratzeko 254.000 euroko dirulaguntza jaso zuen Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik 2010eko urte amaieran. 2012ko azaroaren 16an, Udalak egindako diru-laguntza eskaerari erantzunez, proiektuari beste 116.000

Aurten Udalak egindako dirulaguntza eskaerari erantzunez, proiektuari beste 116.000 euro eman dizkio Ingurumen Sailak

euro eman dizkio Ingurumen Sailak.

Aranzadi zientzia elkarteari esleitu zion Oriako Udalak Motondo berreskuratzeko proiektua, 2011. urteko urrian. Ordutik, natur-balioen azterketa egin dute eta oinarritzko exekuzio proiektua eginda dagoen arren, egitasmo orokorra idazten dihardute orain Marko Sierra ingeniari agronomoak, Kimetz Etxeberria bide, kanal eta portu ingeniariak eta Anartz Ormaza arkitektoak.



Aranzadiko idazkari Juantxo Agirre Markos Sierra eta Kimetz Etxeberria ingeniariekin. KARKARA

2011z geroztik, Uraren Euskal Agentziarekin lanean ari da Oriako Udala proiektua bultzatu nahian. *Elkarlanerako bideak irekita daude: proiektuari babesa emana dio Uraren Euskal Agentziak eta egun elkarlanerako hitzarmenaren zirraborra idazten ari dira*, jakinarazi du Oriako Bilduk.

Aranzadiren ustez, Oriako itsasadarra euskal kostan aurki daitekeen padura multzorik garrantzitsuenetakoa da, bioaniztasunaren erabilera iraunkorra eta kontserbazioa sustatzeko funtsezko ekosistema delako. *Motondoko padurak degradazio handia pairatu du azken urteotan. Berreskuratu egingo da orain, Oriako itsasadarraren balio-jartzea gailenduz*, diote Aranzaditik.

Motondoko proiektuaren harira, Motondoko padura berreskuratzeko egitasmoaren aurkezpena eta zenbait jardunaldi egin dira Oriako Kultur Etxean. Espainiar Estatuko adituen hitzaldiak ere izan dira, tartean, eta Urdaibaira irteera egin ondoren, abenduaren 22an Motondo inguruak bisitatuko dituzte aurrez izena eman dutenek.

Dike berria jarri, zaharra kendu

MARKO SIERRA
INGENIARIA

Proiektuaren lehen fasea datozen sei hilabeteetan egingo da, 300.000 euroko aurrekontuarekin:

Mota baserrirako sarbideko ibilbidearen zati bat aldatu egingo da, tarte batean hegoaldera bideratuz. Dike batekin eta buztina erabiliz, altzadia babestu egingo da, bestalde; horrela, dikearen goiko plataformak baserrira joateko balioko du, hasieran. Gero, egungo dikea kendu egingo da itsasoaren eta ibaiaren arteko uraren fluxua askatuz, eta belardiak padura bihurtzeko lehen urratsak emanez.

Besteak beste, hobekuntzak izango dira ur-azalera eta angulen ekosistemaren kalitatean, itsasoaren ekoizpenean eragina baitute paduradun ibaiek.

ORIOKO KONTUAK



Erakusleihoetan jartzeko hiruna zuhaitz eman dizkio Udalak herriko merkatariei. KARKARA

Argiztatutako zuhaitzak jarri dituzte dendariak argi-kontsumoa gutxituz

Arkupe merkatarien elkartekoek erakusleihoak argiz apaintzeaz gain, dendetako sarrerak alfonbra gorriekin apaindu dituzte oriotarrak erosketak herrian bertan egitera animatuz.

Herria girotzeko eta Gabon usaina zabalteko asmoz, Orioko erakusleihoetan argiztatutako zuhaitzak jarri dituzte dendariak, Merkataritza Aholku Mahaiaren bitartez, opari gisa jasota. Festa egunak bukatu bitartean, 17:00etatik 22:30era piztuko dituzte zuhaitzok. Kalean jarri izan dituzten Gabonetako argiak zuhaitz horiekin ordezkatu ditu Udalak, argi-kontsumoa murriztuz.

Arkupe merkatarien elkartekoek Udalaren ekimenarekin bat egin, eta erakusleihoak argiz apaintzeaz gain, dendetako sarrerak alfonbra gorriekin apaindu dituzte, *urte osoan bezalaxe Gabonetan ere jendea dendetara sartzera gonbidatu eta erosketak egitera animatu nahi ditugu*, diote.

Bide batez, apainketa lanak egin dituztela aprobetxatu eta erakusleiho lehian parte hartzeko aukera izango dute merkatariek. Abenduaren 21etik 31ra bitartean herritarrek Il Gelaton, Kutixin, Ogiberrin, Goxoki Azkuen eta bi Sayale-

rotan eman beharko dute onena aukeratzeko botoa. Urtarrilaren 2an jakinaraziko dituzte lau sarituak: epaimahaiak aukeratzekoak hiru; herritarrek bestea.

2.000 euro saritan

Arkupek beste hainbat ekimen ere egingo ditu Gabonetan. Abenduaren 24an, Olentzeroren etorreran eta txokolatadan laguntzaile izango dira. *Bikokote* antzerki emanaldia antolatu dute 26rako, 17:00etan, Kultur Etxean, .

Erosketa express ekimena ere jarri dute abian eta 2.000 euro banatuko dituzte saritan. 20 lagunek 20 euroko 5na bono jasoko dituzte erosketa bakar batean edo hainbatetan erabiltzeko. Abenduaren 31ra bitartean, erosketak egin ahala, txartelak banatuko zaizkie erosleei izena eta telefonoa jar ditzaten. Zozketa egin eta urtarrilaren 2an sari bonoak banatu ondoren, urtarrilaren 3an, egun bakarrean, egin beharko dute gastua saridunek, Arkupeko edozein dendan.

LABUR

Jendartea

Kartelak jartzeko panelak

Herriko talde eta norbanakoek beren kartelak eta oharrak jartzeko kolore urdineko 13 panel instalatu ditu Orioko Udalak hainbat tokitan: Xixario parean, Uranga burdindegia ondoan, pilotalekurako pasabidean, Kosta tailerrean, Hondartza bidean, Abaromendi inguruan, Iturbide kalean, Musika eskolan, Kiroldegi ondoan, Anbulatorioaren aldamenean, 634 errepidearen zubi azpian, Anibarko Portuan eta tren geltokian. Horrela, kartelak jartzeko toki zehatzak izango dira herrian alde batetik; eta bestetik txukuntasunean irabazi nahi da. Aurrerantzean, hortaz, kartelak beste paretetan ez jartzeko egin die dei Udalak herriko taldeei.

Euskara

Mintzalagun

Euskaldun berriak eta zaharrak harremanetan eta solasean jartzen dituen Mintzalagun egitasmorako euskaldun zaharrak falta dira Orion, Udaleko Euskara teknikariak jakinarazi duenez. Intereza duenak Jabier Zabaletaren udal txeko bulegora agertu besterik ez du egin behar. Bertan jasoko du, besteak beste, AEKrekin harremanetan jartzeko informazioa.

Zaharren Babes Lekua

Urteko batzarra

2013ko urtarrilaren 10ean, ostegunarekin, egingo du aurtien Zaharren Babes Lekuak urteko batzarra. 17:00etan hasita, ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2012. urteko balantzea, bukatzean den urteko jardueren memoria eta zuzendaritzako kide erdiak berritzeari ekingo diote, besteak beste. Horrez gain, 2013ko kuotaren ordainketaren berri ere emango da bileran: urtarrilaren 21etik 25era egingo da ordainketa hori Zaharren Babes Lekuaren bertan, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Hirigintza

Plan Partziala jendaurrean

Madrilgo Auzitegi Nagusiak behartuta, Muntoko eremuari dagokion lerketa Hidrologikoa eta Plan Partziala, biak batera, jendaurrean jarri ditu Orioko Udalak. Abenduaren 3tik hasita, 20 lan-egunez egongo da ikusgai Orioko udaletxean, interesatuei, hala irudituz gero, udalbatzarraren aurrean alegazioak aurkezteko aukera emanez.

Udal Elkarteak 2013tik aurrera ez du poltsa konpostagarriak banatuko

Erositako poltsa konpostagarrietan, ohiko plastikozkoetan edo etxe-ko edukiontzi marroian bertan bildu daitezke aurrerantzean hondakin organikoak; plastikozkoak baina ezingo dira 5. edukiontzira bota.

Urola Kostako Udal Elkarteak hainbat berrikuntza egingo ditu bio-hondakin edukiontzia zerbitzuan 2013tik aurrera.

2010eko ekainaz geroztik jasotzen dira hondakin organikoak edukiontzi marroietan. Jasotako hondakin organiko kopuruak gora egin du urtetik urtera: iaz, urte osoan, 16.791 kilo jaso zituzten Aian eta aurten, berriz, urtarriletik urrira bitartean, 25.079 kilo. Orion, iaz 73.613 kilo izan ziren eta aurten batutako kopurua 94.797 kilokoa da.

Zerbitzu horrekin bat egin duten familiek ontzi marroi txiki bat, giltza eta poltsa konpostagarriak jaso dituzte

orain arte doan, Udal Elkartearen eskutik. Baina krisi ekonomikoaren ondorioz, udalen eta Udal Elkartearen murrizketak kontuan hartuta, Udal Elkarteak zerbitzu horretan aldaketak egingo dituela adierazi du: poltsak doan banatzeak, eskualdeko gaurko erabiltzaileen kopurua aintzat hartuta, 168.000 euro inguruko gastua ekarriko luke-eta. Beraz, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera poltsa konpostagarriak ez banatzea erabaki du. Ondorioz, herritarrek hiru aukera izango dituzte etxe-ko hondakin organikoak kaleko edukiontzi marroian husteko: Udal Elkarteak banatu dituen kubo itxian garraiatu eta edukiontzi ma-

rrorian hustea; plastikozko poltsa batean garraiatu, hondakinak edukiontzi marroian hustu eta, plastikozko poltsa edukiontzi horira botatzea; edo poltsa konpostagarriak saltokiren batean erosi eta orain arte bezala poltsa edukiontzian sartzea. Poltsa horiek zaku formakoak eta 43x48 zentimetrokoak izan beharko dute. Gainera, konpostagarriak direla ziurtatuta egon behar dute. Dena dela, oraindik non salduko dituzten zehaztuta ez badago ere, garaia heltzean, saltzaileek poltsen baldintzen berri izango dute.

Ontziratuzaitzekanpaina

Bestalde, Urola Kostako Udal Elkarteak *Ontziratuzaitzek* kanpainaren lehen balorazioa egin du. Arraindegiko erosketetan ontzi edo tuperra erabiltzea eta paper eta plastikozko poltsen erabilpena murriztea da helburua. Orion 1.410 ontzi banatu zituzten eta azaroaren 12tik 30era bitartean erosketak tuperrarekin egin dituztenak 1.712 izan dira.

Ontzi berrerabilgarriekin arraina erosi duten herritarrek zozketarako txartelak jaso dituzte. Arraindegi bakoitzean eginga dute zozketa eta zenbaki saritu bakoitzak 30 euroko balioa duen txartela jaso du arraindegi horretan bertan gastatzeko. Maria Eugenia Atxegak jaso du Carmen arraindegian; Maria Luisa Udebek Lurdesenean eta Txominenean oraindik ez da agertu irabazlea, 445 zenbakiaren jabea. Hurrengo zozketan abenduan erosketak ontziekin egin dituzten bezeroak sartuko dira.

Udal Elkartearen lehen balorazioa ona da; batetik arraindegien parte hartze eta ahaleginarengatik, eta bestetik, herritarrek kanpainari egindako harrera ere ona izan delako, paper eta plastikozko poltsen kontsumoak behera nabarmen eginez. Ontziak erabiltzeko ohitura indartzea eta finkatzea da aurrera begirako helburua.



Zulodun ontzi marroiak kubo itxiekin trukatu dituzte hondakin organikoak jasotzeko. KARKARA

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzlak

Urola Kostako 5 Tel: 943 24 07 74 Ono

ITZALA

kartelak jokatzeko

apropos

tel. 943 83 12 59

2GURPIL

Bazterre 2 - 3 - 20010 Ormaiztegui (Gipuzkoa)

Tel: 943 836 888 www.2gurpil.com bigurpil@totomail.com

Kaanache eta Irigoien izan ziren azkarrenak Orioko herri lasterketan



Kaanache Ortzakara bidean. KARKARA

400 inguru korrikalarik hartu zuten parte igandean, abenduaren 16an, Orioko Herri Ikastolak antolatutako Orioko lasterketan. Horietatik 300ek egin zizkioten bi buelta herriari: 14 kilometro

Ikastola paretik irten eta segituan luzatu zen lasterketa, bizkorrenak buruan jarrita. Lehenengo itzulian, Ortzakara bidean Ikastola paretik pasatzerako korrikalari batzuen eta besteen arteko tartea handiak ziren dagoeneko. Hossain Kaanachek lasterketaren lidergoa hartu zuen ordurako.

Moila bazterretik Ikastolarako bidea eginda bukatu zuten ibilbide motza aukeratutako hainbat eta hainbat lasterkarik. Javier Perez irundarra izan zen gizonen artean aurrenekoa 7 kilometro-ak egiten. 24 minutu eta 6 segundo behar izan zituen. Emakumezkoek dagokionez, berriz, Eva Pelaez andoaindara izan zen Ikastola aurreko helmugan bizkorrena, 28 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Orioko korrikalarien artean –aiarrik ez baitzen distantzia horretan–, Julen Saldias eta Olatz Mujika oriotarrak izan ziren bizkorrenak.

Distantzia luzean ere bai

Bitartean, 14 kilometro egin behar zituzten lasterkariak aurrera eta atzera zebiltzan herrian barrena. Proba hasi eta 48 minutu pasatxora –48 minutu eta 6 segundora– iritsi zen Hossain Kaanache helmugara, bakar-bakarrik eta pozik. Minutuko aldea atera zion bigarren izan zen Joxean Beledori eta baita Ibai Alba hirugarren sailkatuari ere. Gutxira, 20 segundo eskasera ailegatu zen Aitor Rubio ere –5.–. Hodei Alkorta izan zen aurreneko aiarra, 55 minutu eta 9 segundoko denborarekin.

Emakumezkoetan, berriz, lehia estu samarra izan zuten hasieratik ia bukarara arte Uxoia Irigoien eta Susana Crespo oriotarrak. Azkenean baina, Irigoien getariarra nagusitu zen, 58 minutu eta 9 segundoko denborarekin. 35 segundora iritsi zen Crespo. Sonia Alonso oriotarra izan zen hirugarren. Aiako emakumerik ez zen izan distantzia luzeko proban.

LABUR

Txirrindularitza

'Quebranta' rako izena ematea

Aurten ere oriotarrek izango dute aukera batera izena emateko ekainean egingo den Quebrantahuesos probarako. Horretarako, 2Gurpil bizikleta dendara joan behar da abenduaren 27a baino lehen, izan ere izena emateko epea handik egun gutxira zabalduko dute. Bestalde, Aldapa elkarterko arropa nahi dutenek ere, 2Gurpil dendan egin beharko dute eskaera ahal bezain laster.

Plaieroak

Bigarren partida irabazita

Orioko talde bakarra dabil aurten Zarauzko plaieroetan. Taldeak Xixarioren izenaren jokatzan du eta abenduaren 16an lortu zuen lehenengo garaipena. Ordura arteko partida bakarra zuten irabazita, Kiribil estilistak taldearen aurka. Gainontzeko norgehiagoka guztiak galduta, garaipenaren beharra zuten neskek eta Katixa taldearen kontra lortu zuten bigarrena, 1-0 irabazita. Urtea bukatu aurretik jokatuko dute denboraldiko datorren partida, abenduaren 30ean, hiru puntura duten Zubi-Ondo taldearen aurka.

Futbola

Neskek galdu gabe

Orioko Futbol Taldeko kadete neskek pauso sendoz ari dira beren ligan aurrera. Kadeteen lehenengo mailan, jokatu dituzten hamar partidak irabazi dituzte orain arte. Bi lehia falta zaizkie lehenengo fasea bukatzeko eta lehenengo postua ziurtatuta dute oriotarrek. Bigarren fasean Ohorezko Mailara igotzeko aukera izango dute jokoan oriotarrek. Gainontzean, gizonetakoetan, Erregional Preferente mailako taldea 7. dago, azken partida Muniberen kontra 1-4 irabazita. Asteburuan Roteta hartuko dute etxean.



Jende asko San Nikolas festetako kirol probetan

Xakea, korrika apustua, asto-karrera, pilota partidak, saskibaloia, futbola eta giza-proba izan dira aurtengo sanikolasetan. Jende ugari hartu du parte eta ikusle asko erakarri dituzte guztiek.

Orioko Herri Ikastolak antolatuta, xakea izan zen San Nikolas festetako lehen kirol ekitaldia. Abenduaren 6an, 7 eta 14 urte bitarteko 31 xake jokalaria aritu ziren Kultur Etxeko areto nagusian lehen ia 4 orduz. Neurketa estuak ikusi ahal izan ziren tartean, eta, azkenean, Josu Menterola, Adrian Argintxona eta Ander Martin izan ziren garaile.

Oako eskaileretako korrika apustua izan zen San Nikolas eguneko bigarren proba. Benito Lertxundik garai batean jarritako 11:30 segundoko errekorra puskatzeko prest agertu ziren 23 korrikalari. Bina saiakera izan zituen bakoitzak eta eskaileratan gora abiatuta, aisa bota zuen orain arteko marka behera Andoni Campos oriotarrak, bertaratu zen jendetzaren txalo artean. 11:43 segundoko denbora egin zuen aurrenekoan, baina horrekin nahikoa ez eta 10:99 segundora jaitsi zuen bigarrenen. Joseba Tarantinok ere hobetu zuen Lertxundiren denbora. 300 euro eta Pedro Salsamendik emandako txuletak jaso zituen garaileak.

Abenduaren 8an gehiago

Goizeko 10:00etan hasita, ia 100 talde aritu ziren 3x3 saskibaloitxapelketan festetako azken egunean. 40 inguru boluntarioen laguntzarekin, goizean nahiz arratsaldean izan ziren partidak.

Eguerdi partean, Ignacio Zalduaren omenezko futbol triangularra jokatu zuten Mendibeltzen Zarautz, Orio eta Lleidako taldeek. Bukatzeko, giza proba izan zen arratsaldean. Helduko neska-mutilak nahastu ziren bitaldetan eta plazabateko alde aterazio batak bestearik. Bukatzeko, asto karrera Sergio Alonso oriotarrak irabazi zuen.



Kirol ekitaldi asko eta herrikoiak izan dira aurtengo sanikolasetan. KARKARA

Aiako berri

“Ez dakit nola atera diren saritutako argazkiak hain kamera zaharretik”

Eduarne Albizu

Argazki lehiaketako irabazlea

Aiako argazki lehiaketako sariak banatu dituzte eta Eduarne Albizuk jaso ditu lehen eta hirugarren saria *Indagarate zahar baserria* eta *Negua Urdanetan* argazkiekin. Egutegirako bere beste argazki bat ere aukeratu dute: *Urdanetako urak*.

IRATTIAGIRREAZALDEGI

Urdanetako Begoña landetxeko alaba da Eduarne Albizu eta bere amak, Begoña Lizasok, ere jaso du saria argazki lehiaketan, *Atariko Lizarra* argazkiarekin. Etxeko webgunean ikusgai jartzeko ateratzen ditu argazkiak eta orain egutegietan ere ikusiko dituzte aiarrek.

Argazkizalea al zara?

Ez bereziki. Urdanetan nekazal etxea daukagu eta web orrian jartzeko ateratzen ditut argazkiak, jendeak inguruak ikusteko eta kanpotarrak erakartzeko. Pagoeta edo Altzola aldera paseoan bakarrik joaten banaiz, eramaten dut kamera; lagunerekin joanez gero ez.

Orain dela lau urte koadrilako lagun batek esanda hartu nuen parte lehiaketan, baina ez nuen saririk eskuratu. Aurtan, ordea, gaiak Urdaneta eta Elkano auzoak izanda, animatu egin nintzen. Banituen aurretik ateratako argazki batzuk eta gero, aurkeztu aurreko astean, Urdanetan beste batzuk atera nituen. Politenak edo auzoari buruz gehien esaten zutenak aukeratu eta bidali nituen.

Argazki sarituak ateratzeko kontuan hartu al duzu lehiaketarako zirela?

Lehen saria jaso zuen argazkiko baserriak, *Indagarate zaharrak*, historia handia dauka eta arkitekturan ere bada zer nabarmendua. Baina irudian baserri zaharra agertzen den arren, urrian berritzen hasi ziren eta erabat aldatuta dago. Hirugarren argazki sarituan gure etxea eta azpiko sagarrak daude elurretan, baina aurretik aterata neukan, otsailean, etxerako edukitzeko ez lehiaketarako. Egutegirako aukeratu duten uraren argazkia ateratzera propio joan nintzen. Urdanetatik Altzolarara askotan ibiltzen naiz, eta mendian behera etortzen den uraren argazkia polita iruditu zitzaidan.



EDUARNE ALBIZU ETA ELI LASA

Teknologia berriek ematen dituzten baliabideak erabiltzen al dituzu?

Argazkiak zuri-beltzean edo sepia tonon jarri ditut lehiaketa honetarako, hain zuzen ere. Baina gainontzean ez diet al daketa askorik egiten teknologia baliatuta. Kamera arrunta da, orain dela 8 urteko kamera zahar bat daukat, 7 megapixelkoa. Ez dakit nola atera diren saritutako argazkiak nire kameratik.

“Uraren argazkia ateratzera propio joan nintzen... Mendian behera etortzen den uraren argazkia polita iruditu zitzaidan.”

“Denborapasa polita da, eta lehiaketa motibagarria izan daiteke. Tonto-tonto hasi arren gustua hartzera iritsiko naiz.”

Aiako zein txoko aukeratu zenuke argazkiak ateratzeko?

Dudarik gabe Urdaneta. Oso auzo txikia da, bi baserri eta eliza daude eta gero beste baserriak alboetara. Baina mugimendu asko egoten da eta aste bukaerarako lekurik onena niretzat hori da. Kalera zein mendira 10 minutuan iristeko aukera dago eta horrek lasaitasuna ematen du. Hemen bista oso politak daude argazkiak ateratzeko: Pagoeta aldera igoz gero Zarautz guztia, Zumaiako pusketa bat, Orio eta Donostiako hondartza inguruak... ikus daitezke.

Beste lehiaketa batzuetara aurkeztu duzu argazkirik?

Ez, honetara bakarrik. Datorren urtean ere seguru asko aurkeztuko ditut. Santio eta Andatza dira gaiak eta eguraldi ona dagoen egunen batean han ibiliko naiz kamera hartuta. Beharbada orain, saria eskuratuta, animatuko naiz beste lehiaketaren batera argazkiak aurkeztuta. Denbora-pasa polita da, eta lehiaketa motibagarria izan daiteke. Tonto-tonto hasi arren, gustua hartzera iritsiko naiz.

Aiarrak animatu nahi nituzke parte hartzera, aurtan herriko jendea apenas izan da-eta. Herrigunetik aparte bizi garenoi nagieria sartzen zaigu askotan, baina auzoetako gaiak landuz gero, ea aiar gehiago aurkeztu den; auzoek herriak besteko garrantzia dute-eta.



Lau eguneko lan-uztea egin zuten Estampaciones Gipuzkoako langileek, aurre-hitzarmena lortu baino lehen. KARKARA ETA J.M.CARRILLO

Grebaren atzetik, aurre-hitzarmena lortu dute *Estampaciones Gipuzkoan*

Espainiako Gobernuak aurkeztutako Lan Erreformaren aurrean, gaur egun indarrean duten hitzarmenari eusteko eskatzen zioten langileek enpresako zuzendaritzari.

Abenduaren 10ean hasita, 4 eguneko greba egin zuten *Estampaciones Gipuzkoa* enpresako 39 langileek, Espainiako Gobernuaren Lan Erreformak dakartzan aldaketan aurrean, indarrean duten metal arloko enpresa-hitzarmenari eutsi nahian. Izan ere, Lan Erreforma horren arabera, enpresa hitzarmenak balioa galdu egingo lukete, estatuko hitzarmenak lehenetsiz.

Mugagabea zen greba bere hasieran, baina abenduaren 12an zuzendaritzako

deia jaso zuten langileek eta ondorioz, greba bertan behera utzi eta 21:00etan, mahaiaren bueltan eseri ziren, negoziatzeko. Juan Manuel Carrillo ELAko ordezkariaren hitzetan, besteak beste, 10 lagunentzako EEEda aurkeztu zuen zuzendaritzak, bezero bat galduta, lan txanda bat sobera dagoela argudiatuta. Baldintza horiek ez zituzten onartu langileek gezurra zelako ustearekin. Bi egunetara negoziatzeko nahia agertu zien berriz Produkzio zuzendariak.

Langileek ekainaren 18an aurkeztutako dokumentua oinarri hartuta hasi zuten negoziaketa. Iluntzean sinatu zuten bi aldeek aurre-akordioa. Bertan adostu zuten langile guztien soldatei KPIa igotzea, soldata-osagarriak %1 igotzea, hitzarmenean soldatei buruz ezarritakoa aplikatzeko klausula eta lan egindako urte bakoitzeko metalezko hitzarmenak zehazten dituzenez gain, sei egun gehiagoko kalte-ordaina. Bestalde, Gipuzkoako metal hitzarmena *Estampaciones Gipuzkoa* enpresara egokitzeko ardura ere hartu dute. Akordioa bi urtez egongo litzateke indarrean; gero, 2016ra arte, baldintzak berriz negoziatzeko tartea izango lukete.





Aiako berri

Aiako leihoa

Maddi Altuna

Sare sozialetan harrapatuta



nartu beharra daukat *Whatsapp* eta *Facebook* sare sozialen eguneroko erabiltzailea naizela, *praktikante* fidela gainera.

Urrutiko lagunengandik hurbilago sentitzeko, gertuko senide eta lagunekin momentuko elkarrizketa azkarrek izateko eta munduan gertatzen diren mugimendu sozial ezberdinen berri edukitzeke erabiltzen ditut batez ere. Ezbairik gabe, bi sareak ditut gustuko, baina zenbaitetan ez nago ziur eguneroko bizitzan onura edo kalte gehiago egiten ditaten...

Hasiera batean, *Facebook*eko abisuak nire helbide elektronikora iristen ziren, eta orduan erabiltzaileak asko ez gineenez, horrek ez zidan arazorik ekartzen.

Baina, denbora gutxian, korreora gero eta abisu gehiago iristen hasi zitzaizkidan, eta orduan, bake pixka baten bila, abisu horiek kentzea erabaki nuen. Beranduago, *Whatsapp* mugikorrera deskargatu nuenean, tartean behin lagun eta senideen mezuren bat edo beste iristen zitzaidan, eta gustuz entzuten nituen mezuen bip-bip hotsak. Baina due-la zenbait aste aspalditik egin behar nuena egin nuen azkenean: *Whatsapp* ere isildu. A ze bakea! Egiten ari nintzen hori uztera behartzen ninduenaren tentsazioa neukan eta aurrean daukazun

Egin behar nuena egin nuen azkenean: *Whatsapp* isildu.

horretan atentziora jarri beharrean urrutikoarekin egotera behartzen ninduen. Orain bi sareak isilik ditut, eskerrak; baina isilik egon arren, hor daude eta nahi baino gehiagotan nire atentziora desbideratzen dute deika ari zaizkidan ma-muak balira bezala.

Asteburuan, Frantzian izan ginen, eta, han mugikor bidezko internet konexioa oso garestia denez, batere konexiorik gabe pasa genuen eguna. A zer egun lasaia, a zer bakea sentitu nuena! Agian, tabakorik edo autorik gabeko egunak bezala, laster *Whatsapp* eta *Facebook* ik gabeko egunak sortu beharko ditugu ni bezalakoentzat, egiten ari garen horretan lasai jarduteko, gauden horrekin lasai egoteko, momentu errealez lasaitasunez gozatzeko...



Txokoak eta jendea Argazki lehiaketako irabazleak

Berehala banatuko dute Aiako etxeetan 2013ko egutegia, aurtengo argazki lehiaketako irudiekin osatua. Hona hemen irabazleak: Honorio Lauchas, kanpoko irabazlea; Begoña Lizaso eta Edurne Albizu Aiako sarituak; Oliver Perez kanpoko bigarrena; eta alkatea. Behean, Maitane eta Amets osaba Juanjo Rivas hirugarrenaren ordezkatzu.





17. Erdigunetik gertu

San Martin auzoko Lizargarate baserrria 1562an eraiki zuten. Argazki zahar batek erakusten du bi isuriko teilatua, oinplano laukizuzena, kareztatu gabeko harlangaitzezko hormak eta hiru solairu zituela.

Bota zuten bitarteko historia luzea du baserriak. XVI. mendean Orioko Hiribilduan eraiki ziren baserrietako bat izan zen. Alde Zaharra haztearekin erai-kinetik hiribilduan betetzen zuten azale-

ra ere zabalduz joan zen eta horregatik zeuden baserriok erdigunetik gertu.

Garai hartako dokumentuei erreparatuta Lizargarateri buruzko hainbat kontu jakin daitezke. Mugarrien azterketek diote 1712an baserriaren jabea Don Manuel Vicente de Urtesavelen aita zela eta Lizargarate baserriarenak zirela inguruko lurrak. Behin baratze lanetarako erabilitako zati batean jabearen semeak lizarrak landatzea erabaki zuen.

Beste datu batzuetan daude, Lizargarate *la mayor* eta *la menor*-en aipamenak etxea bi zatitan banatua zegoela pentsarazten dutenak. Lizargarate *la menor*-en harira Juan de Lerchundi eta Ygnacio de Allurraldek diote 1725ean han bizi zirela *algunas personas sospe-*

chosas y de vida no buena y que causan notable escandalo. Bestalde, mende berean egurrezko egituraren berritze lanak egin zituzten. Hirugarren Guda Karlistan Alfonso XII. aldeko gudarostearen kalteen zerrendan, Orion Lizargarate bakarria agertzen da.

Lizargarate A8 autobidea eraikitzearekin batera bota zuten 1972an eta Lizargarate berri eraiki bitartean Kallabarron bizi izan ziren. Ondorengoek gogoa dute baserrian esnetarako behiak zituztela eta Orion banatzen zutela, baita arbasoak baserri inguruko harrobi batean hargin lanetan ibiltzen zirela. Demarako idiak ere hazten zituzten.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN]





HERRIRA TALDEA

“BAKOITZAK
BERETIK ASKO
EGIN DEZAKE
PRESOEN ALDE”





Marko politiko berriaren eta Gernikako akordioaren harira sortu zen **giza eskubideen aldeko herri mugimendu** hori. Orion ere bada Herrira taldea eta haien jarduna azaltzera gatoz datozen orrialdeetan, taldeko ordezkari Kandido Esoain eta Alazne Goenagarekin hizketan luze aritu ondoren.

TESTUA: IKER GURRUTXAGA
ARGAZKIAK: KARKARA ETA HERRIRA

Lokalez aldatzeko nahia dute Herrira taldekoek. Galtzarriren lokalean elkartu ginen elkarrizketa egiteko taldeko kideekin. Kolore politikorik ez dute hartu nahi, ordea, presoek eskubideek ez baitute halakorik behar Herrirako kideen esanetan. Egiten duten lanaz aritu gara hizketan.

Ia urtebete da herrira sortu zela; nolako balantzea egin duzue?

Trantsizio egoeran igaro dugu urte hau. Aurreko ibilbidearekin zerikusirik ez zeukan herri bilgunea sortu nahi genuen, anitza izango zena. Gurea ez da aurreko taldeen jarraipena. Egia da au-

rretik ibili garen pertsona berak bagabiltzala Orioko talde motorean, baina guretzat ere beste urrats bat izan da. Balantze positiboa egin dugu, baina aurrerapausoak pixkanaka eman ditugu; izaera eta dinamika berrira egokitzen ari gara.

Nolako izan zen sorrera prozesua?

Egin dezagun bidea plangintzak iraungitze data zuen, urtarrileko manifestazioa. Han lan-talde bat sortu zen eta bilgune berri hau eratzeke proposamena jarri zen mahai gainean. Arrazoiak arrazoi, kosta eginda urte osoan zehar denek taldean iraunkorki jarraitzea; baina argi dugu orduan ere in zela talde honen hazia. Badugu oraindik zer hobeturik; taldea ahalik eta anitzena izan dadila, hori da aurrera begirako nahietako bat, Pre-

so eta iheslarien gaur egungo egoera 2013ko herriko agenda politikoan sartzea ere bada gure erronka, epe motzera. **Nola azalduko zeniekete herritarrei aurrekoaren eta Herrira Taldearen arteko diferentzia?**

Daukagun marko politiko berriarekin ikusten da, dagoeneko, aldaketa bat badagoela. Jendea presoek egoeraz sentibilizatzea nahi dugu, eta horretarako herritarrek argi eduki behar dute guk ez daukagula inongo kolore politikorik. Presoen eskubideen alde dagoen oro ongi gietorria da gurean. Bakoitzak bere esparrutik egin dezala lana, keinurik txikiena bada ere, positiboa izango baita guretzat. Hala, jakin badakigu, aldarrikatzen dugun oinarritzko eskubideen

ELKARRIZKETA



bermatzearen ideia herritar askok elkarbanatzen duela.

Ulertzen dugu, baita ere, Orion beti irudi bera eman izan dela orain arte, ezker abertzalearekin lotura izan duena. Bada, gaur, zaila bada ere, hori desberdindu egin behar dute herritarrek. Interesa duen guztiak, Herriraren webgunean –www.herrira.org– badu sorrera dokumentuaren berri; eta baita informazio ugari ere. Herrira taldearen mahaia herritar guztientzat zabalik dago; norbanako bakoitza eroso sentitzea garrantzitsua dela uste dugu. Garai berriotan, iragana ahaztu gabe, denon artean giza eskubideen alde aurrerapausoak emateko aitzakiarik ez dagoela iruditzen zaigu.

Esan bezala, eragileengana gerturaztea izango da datorren urtera begira gure erronketako bat. Ekintza asko herrian egiten dira, eta herritar batzuk ez dira guztietan eroso sentitzen. Horretarako ekintzen aniztasuna bilatu behar dugu guk, herritar guztiak beren sentsibilitatea adierazteko aukera izan dezaten, zerbaitetan bada ere.

Lokalez ere aldatu nahi dugu; gainerako eragileen inguruan egon nahi genuke, herritarrek berengandik gertuago sentitu gaitzaten. Oraindik badira gureganako aurreiritziak eta hor ere badaukagu zertan hobetua. Eragileen ordezkari eta kideekin kafe asko hartu behar ditugu.

Zer da Herrirak lortu nahi duena?

Orion batez ere dispertsio politika jarri nahi dugu mahai gainean, gure herriko presoek kasuetan horrek baitauka eragin zuzenena. Ez daukagu *Parot doktrina* sufritzen duenik edota gaixo larririk. Gabonetan egingo den kanpaina horretan zentratu nahi dugu. Kanean, jendearen begietara, herritarrek dispertsioa nola bizi duten adierazi nahi dugu.

Urtarrilean Bilbora joateko hiru autobus bete ziren. Zein da aurtengo zuen erronka?

Hiru autobus bete ziren eta datorrenean hori, gutxienez, berdindu nahi dugu. Egun guztiko ekimena izango da eta,

“Gurea ez da aurreko taldeen jarraipena. Egia da aurretik ibili garen pertsona berak bagabiltzala Orioko talde motorean, baina guretzat ere beste urrats bat izan da”

“Presoen eskubideen alde dagoen pertsona oro ongietorria da gurean. Bakoitzak bere esparrutik egin dezala lana, keinuak txikiak bada ere, positiboa izango baita guretzat”

“Bilbora joatea garrantzitsua da, baina herritar kopuruaz gain, urte osoan gaiarekiko sentsibilizazioa zabaltzea lortu nahiko genuke. Bilboko manifestazioak balio badu horretarako, bada, primeran”

“Oraindik ere jazarpen egoera nozitzen dugu kartzelatara gerturatzeko garenean. Bai kartzelatan eta baita handik kanpora ere. Alacanten izan garen azkenetan kaletik identifikatzeko eskatu digute”

“Bisitak egiten dituzten batzuk oraindik ez dira ausartzen hori adieraztera eta gure ustez informazio hori elkarbanatzea oso aberasgarria da. Normalizazio prozesuaren baitan dago”

“Alderdiek gaiarekiko duten posizioa argitu behar dute. Dituzten irizpideak herritarrei argitu behar dizkiete; konpromisoak hartu. Euskal Herrian bizi garela; eta Orion ere, aipatutako egoera pairatzen duten herritarrek ditugulako”

hartara, goizetik autobus bat joatea nahiko genuke Bilbora datorren hilaren 12an. Baina beharren arabera egingo dugu hori, beti ere lehen tasuna manifestazioak izango duelarik. Urtarrilekoa inflexio puntua izaten da.

Bilbora joatea garrantzitsua da, baina herritar kopuruaz gain, urte osoan gaiarekiko sentsibilizazioa zabaltzea lortu nahiko genuke. Bilboko manifestazioak horretarako balio badu, bada, primeran. Une jakin batzuetako berotasunari – Gabonetan, urteroko Bilboko manifestazioan – eutsi nahi diogu urte osoan; izan ere, aurrerapauso batzuk eman badira ere, oraindik ere egiteko asko dago gure ustez. Aurrera begira urrats asko dago emateke...

Nolakoa da Orioko presoek egoera?

Gregoriok 10 urte daramatza kartzelan, baina esperantzaz ikusten da, motibatuta. Patxi, berriz, 4 urte egingo ditu ekainean atxilotu zutenetik, eta bera ere ongi ikusten dugu. Kolektiboaren barruan daude biak eta taldearekin guztiz konprometituta daude, beren egunero ko sufrimendua ahaztu gabe.

Herritik jasotzen duten babes guztia ongietorria da. Bisitez gain, badago bestelako komunikazioa haiekin eta hori guztia eskertzen dute. Mugimendu berria sortu da, eta herriaren indarrak badu garrantzia presoentzat ere. Hori garbi ikusten dute haiek. Bisitek jarraitzen dute eta herriak ez du hor hutsik egiten. Bada bisitarik egin gabe bestelako ekimenak egiten dituen jendea; hori ere zinez eskertzen dute kartzelatik.

Zer suposatzen du bisita batek?

Alde batetik esfortzu ekonomikoa dago –gutxienez 100 euro behar dira bisitako–. Saiatzen gara furgonetetan joaten, baina horrek asteburu guztia bertan ematea ere ekartzen du. Zertxobait merkatzeko da bidaia, baina, Galiziara adibidez, ez da furgonetarik ateratzen. Hala, kotxean joan behar izaten da eta bakkarririk ez joatekotan, askotan bi edo gehiago joan eta bakarrak izaten du bisitarako eskubidea.



Baina arazo ekonomikoaz gain, 40 minutuko bisita labur bat egin ahal izateko, errepidean egin behar diren kilometroak ere kontuan hartu behar dira. Arrisku handia hartzen da bidaiari horietan. Izan ere, lasaiago ibilitezaren alde, asteburu osoa hartu daiteke bisitarako, baina kostu ekonomikoa biderkatzen da. Errepresio aparatua oso ondo diseinatuta dago. Presoak sei hilabeteko 10 bisitari baino ez ditu izaten, eta horrek bisitarien ahalegin ekonomikoa eta arriskua areagotzen ditu. Hiruzpalau bisita egin behar dituzte-eta tarte horretan.

Gainera, batzuetan bizpahiru zerrendetan batera egotea ere tokatu izan zaigu eta horrek aurretik egin beharreko esfortzua hirukoiztera behartzen gaitu.

Horrez gain, oraindik ere jazarpen egoera nozitzen dugu kartzelatara gerturatzeko garen. Bai kartzelatan eta baita handik kanpora ere. Alacanten izan garen azkenetan kaletik identifikatzeko eskatu digute.

Ordu asko dira bidean, 6 ordu Galiziera eta 8 ordu Alacantera. Eta hori joaten bakarrik.

Eta nola ikusten dituzue senideak?

Senide bakoitzaren egoera oso desberdina da eta bakoitzak ahal duen bezala eramaten du egoera; ahalik eta duinen. Taldeak eta senideek harremana mantentzen dugu, elkarrenganako babesa dago ekintzak antolatzerako garaian. Gure lanaren zati bat da senideak *zaintzea* eta sostengua ematea: ekonomikoa eta juridikoa. Kontuan izan behar da presoaren zigorra senideengana ere zabaltzen dela, zalantzarik gabe.

Zer egin dezakegu herritarrok egoeraren aurrean?

Giza eskubide horien alde dagoen guztiak Herrira bilgunean parte hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Ale txikiak jarritz, geroz eta pertsona gehiago izan gaitzen.

Herritarrek giza eskubide horiek babesten dituztela ulertzen dugu, eta haiek hori onartzea izan daiteke guregan gerturatzeko hasiera bat. Bakoitzak

GABONETAN ERE PRESOK GOGOAN

Gabonak data seinalatua izaten dira presoek aldeko mugimenduari dagokionez. Urtero-urtero ekimen bereziak egiten dituzte haiekiko elkartasuna adierazteko, eta aurten ere ez dute hutsik egingo Herrira taldekoek.

Dispertsioak Orioko presoengan eta haien ingurukoengan duen eragina salatu nahi dute datozen Gabonetan eta hasi dira dagoenerako kanpainarekin martxan.

Dispertsioa jasaten duten herritarren egoera presente izateko, hainbat kartel jarri dituzte herrian, errepidean ikusten diren autobideko kartelak irudikatuz. Kartel horietan, fijatuz gero, hemendik urrun dauden herri eta hirien izenak agertzen dira. Izen horiek ohikoak dira bisitara doazentzat. Izan ere Orioko bi presoak herritik kilometro askotara daude. Curtisen, Teixeira izeneko kartzelan, hemendik ia 600 kilometro dago Gregorio Eskudero. Errepidean 6 ordu eman behar dira bera ikusi ahal izateko. Alacanten, Fontcalent auzuneko espetxean dago Patxi Uranga. Hara iristeko 8 ordu behar dira; 800 kilometro bidean.

Haien egoera salatu nahi dute Herrira taldekoek eta, bide batez, ahal den neurrian, kilometro gehien egin behar dituztenei lagundu. Sostengu ekonomikoa ezinbestekoa izaten da, batez ere, senideentzat. Horregatik, dispertsioa begi-bistan jartzeaz gain, abenduaren 24an, Herrirako arroparen salmenta eta mariskadaren zozketa egingo dituzte Herriko Plazan.

Egun osoan izango da arropa erosteko aukera. Mariskadaren zozketa, berriz, iluntzean egingo dute.

Horrez gain, abenduaren 31n, iluntzeko 19:00etan, elkarretaratzea egingo dute plazan. Batetik, dispertsioa salatzen duen bideo bat proiektatuko dute horretarako propio jarriko duten pantailan, eta, bestetik, urtero bezala, presoek aldeko topa egingo dute.

Gabonetako kanpainari bukaera urtarrilaren 12an emango diote, Bilboko manifestazioarekin.



bere esparrutik egin dezake lan egunerokotasunean. Gure zeregina, berriz, jendeari baliabideak ematea eta behar duen guztiaz informatuta mantentzea da. Hori emanda, jendea jabetuko da benetako egoeraz. Askok oraindik ez baitaiki zer suposatzen duen bisita batek, esaterako. Norbanako bezala kuriositatea izatea garrantzitsua da. Jende askok partekatzen ditu mugimendu honen helburuak, baina egunerokotasunean jarrera aktibo hori izatea falta zaie pertsona horiei.

Guk baliabideak eman, jendeak hausnartu, eta ondoren beretik sortzen dituzten ideiak zabaltzea ezinbestekoa da mugimendua indartzeko. Horrela gartzen da herri mugimendu bat.

Adibidez, bisitak egiten dituzten batzuk oraindik ez dira ausartzen hori adieraztera, eta gure ustez informazio hori elkarbanatzea oso aberasgarria da. Normalizazio prozesuaren baitan dago. Konplexuak albo batera uztea oso garrantzitsua da.

Eta herriko elkarteek?

Aurten mugimendua martxan jartzen saiatu gara; bigarren urteari begira mugimendua herriko esparru gehienetan zabaltzeko ahalegina egingo dugu. Ildo nagusi bezala, eragileekin hartu-emana estutzea, eta, batez ere, alderdi politiko- en agendan sartzea jarri ditugu urte berriari begira. Herriko agente politiko diren aldetik, alderdiek gaiarekiko duten posizioa argitu behar dute. Dituzten irizpideak herritarrei argitu behar dizkiete; konpromisoak hartu. Euskal Herrian bizi garela; Orion ere, aipatutako egoera pairatzen duten herritarrek ditugulako. Orain arte ez badute irakurketarik egin, hori bultzatzea izango da gure lana.

Hiru alderdiekin planteatzen ditugu elkarrizketak, modu horizontalean egin nahi dugu-eta lan haiek. Hortik aurrera, herriko gainontzeko taldeengana gerturatu nahi dugu. Haiek ere landu behar dugu gaia, bakoitzak bere esparrutik zerbait egiteko ahalmena izateko.

Colón ala Kolon?

Badira buruan oso sartuta ditugun datak. Halakoetan zenbakiek hitz egiten dute. Zer esaten dizute zuri urte hauek? 1789, 1901, 1936... eta beste honek? 1492. Cristobal Colónek Amerika deskubritu omen zuen. Urriaren 12an iritsi omen zen Espainiako espedizioa Amerikako irlatxo hartara. Hortik beraz gure sasi jaiegun hori. Espainiako hezkuntza sistema ederki arduratu da hori ondo barneratua izan dezagun. Colón abizena kontzeptu zapaltzaile eta zurrupatzaile izatera ere iritsi da mundu osoan. Kolonia, kolonizatu, kolonialismo... Alegia, arrazoi politiko eta ekonomikoek bultzata, beste lurralde bat konkistatzea. Zapaltzea. Bes-teen etxean ni nagusi. Gukezin esan kolonizatutako herria garenik, konkistatu gintuztenean ez baitzen Colón existitzen, ezta Espainia bera ere. Ez naiz eztabaida horretan sartuko.

San Nikolas bezperan udaletxe aurrean ginen oriotarrak. Euritan, otxoteari

begira. Zorionak. Euritan udaletxeko gurutzeari begira. Euskal Herriko hierarkia soziopolitikoaren metafora zirudien argazkiak. Gurutze ederra. Colónek Amerikako hondartzetan sartu zuenaren parekoa. Bertikalean, goi goian, adarjotzaileak. Beheraxeago, erdian, otxotea. Omenduak. Zorionak berriz. Eta beherago. Azpian. Herria. Oriotarrak. Gora begira denak. Horizontalean, ezkerrean Bildu eta Orain. Eskuinean EAJ. Olio eta ura ezin dira nahastu, hori ez da deskubrimetua. Ea hurrengo sanikolasetarako olio ardo bihurtzen den eta urardo fresko freskoa eskaintzen diguzuen. Egoerak merezi duen erantzuna litzateke balkoian bate-

Egoerak merezi duen erantzuna litzateke balkoian batera egotea. Batuketa garaiak dira. Ez zatiketarenak

ra egotea. Batuketa garaiak dira. Ez zatiketarenak.

Valentziako lagun bat izan da festetan. Nati. Euskaraz tutik ez daki. Eraman genuen bertso saiora, Gozategiren kontzertura, txosnetara eta tabernetara.

Goiko aldean buelta egin ostean sartu ginen Kolon Txikin. Hura izan zen deskubrimetua harentzat. Esan zigun goiko tabernetan, begiak itxiz gero, egon zitekeela Valentzian, Madrilan, Londresen edo Amerikan. Kolon Txikin, aldiz, Euskal Herrian. *Negu Gorrian Pello eta Nikolasa Akelarrean Esne Beltza edanez, astelehena biharamun, iepa iepa eta Gora Herria! Paradisu zineman ikusiko gara, zu goxo-goxo eta ni bero bero, aquí no hace falta cama aquí nadie va a dormir.* Eta amaitzeko Koldo Izagirre-ren hitzak Imanol Lartabalek abestuta. *Nire euskaltasuna mundu bat da eta ez du Amerikarik.* Kolon Txiki ez dute kolonizatu. Hori bai deskubrimetua! Gora DJ Bull, gora Kolon Txiki!



XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezaín automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arrantzale, 31 · 20810 ORIO

URAITZ
Lurrinlogia
Asomatu

Enkutatza · Tfno: 943 83 18 97

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
POOLOGIA ZENTROA

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

ASADOR XIXARIO

Barrio Gubirren Kalea, 2
Tel. 943 83 01 07 · ORIO

PATXI OLIDEN

Herrikoak
Etxeko produktuak: tripkak, odolki, txakorra, txarizo, krakotak...

Eusko Gudari, 25 · Tel. 943 83 00 10

Zaragueta Herri Eskola Orío

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Portu ERRETEGIA

Santa Eireka Auzoa, 69
943 89 34 04
20809 AJA ORIO

Erretxak, kaxemito altxak, porriko erretxak, erretxak...

Adarretatik helduta

Ainhoa Zumeta Irakaslea

Mila saltsatan ibiliz, apur asko

Aurreko batean KARKARatik gonbita: iritzi artikulua egiteko prest? Azken aldian oso aktibo ikusi omen naute-eta! Bai, hartantxe ni ere! Dagoeneko burua non dudan jakiten ere lanak ditut eta.

Euskal Herriko txoko desberdin askotan lanean aritu ostean, Nafarroako txoko polit zein maitagarri batean pasatu nituen nire azken hiru ikasturteak. Oposaketak atera eta nora eta Otsagabiara bidali ninduten. Lehenengo sustoa pasa eta gero, han agertu nintzen orduan ere lotsati, zer aurkituko nuenaren kezka. Baina beti bezala esku zabalik hartu ninduten eskola zahar eta txiki hartan. Haien artean gogotsu aritu nintzen lanean, eta, egia esan, nire bihotzeko zati handi bat konkistatu du betirako Gartxoten eta Mikeloten lurraldeak, mendeak igaro arren irauteko gogoak beren artean jarraitzen du eta! Kosta aldeko herri koxkor honetatik muxu handi bat eta Onkixin!

Hiru urte igaro ondoren, lekuz aldatzeko unea iritsi zen eta kiniela egiten hasi beharrean aurkitu nintzen. Zerrenda luze askoa egin

Ezetz esaten ez dugunez ikasi ba... hemen nabil nik ez dakit zenbat saltsatan eta bileretan sartuta, baina egia esan gogotsu! Merez du eta, bai horixe!...
...Mila saltsatan zabiltzaten horiei, asko baitzarete herrian, zorionak eta bejondeizuela!
Halako batean, gutxinaka bada ere, erreleboa iritsiko da!

nuen Gipuzkoako herriak idazten. Azaroan eskatutakoa ia ahaztua nuenean, ekaineko goiz batean, lagun baten mezu batekin esnatu nintzen: Zorionak! Etxera zatoz! Orion eman dizute plaza!

Begiko makarrak kentzeko betarik hartu gabe korrika apustuan pisu-kide maitearengana: *Txiber! Oriyo eman diela!*

Korrika egitea gogoko ez dudan arren, etxetik eskolarako bidea airean eman nuen egun hartan. Berria zuzena zela neure begiz ikusi ostean, lehenengo deia etxekoei, eta jarraian lagunei! Ezin kabituz nire barruan pozez!

Konturatu orduko iritsi zen eskola berrira azaltzeko eguna, baina oraingoan bizikletaz! Orduak eta orduak A-15ean igaro ostean, oraingoan paseotxo polita eta motza zen. Berriro ere hainbat aldiz igarotako sentsazioa: urduritasuna, lotsa... zer aurkituko nuenaren kezka, alegia. Baina berriz ere esku zabalik hartu naute beste hainbatetan bezala. Eta horixe, ba oraingoan geratzeko natorrela!

Eta noski, ezetz esaten ez dugunez ikasi ba... hemen nabil nik ez dakit zenbat saltsa eta bileretan sartuta, baina egia esan gogotsu! Merez du eta, bai horixe!

Euskararen eguna pasa berri honetan, sentimenduak pizten zaizkigu! San Nikolasak, gero Gabonak atzetik, Inauteriak eta Korrika! Bada hemen nahikoa festa! Eta egia esan, horretarako gogorik falta ez zaigunez, hor ikusiko nauzue han eta hemen nire apurra ematen! Eskerrak apur askorekin gauza handiak lor daitezkeen!

Mila saltsatan zabiltzaten horiei, asko baitzarete herrian, zorionak eta bejondeizuela!

Halako batean, gutxinaka bada ere, erreleboa iristen da eta!

Bukatzeko, gonbita: animatu gure artera, apur izan zaitez zu ere! Gustatzen zaizun horretan agertu eta eman herriari zure pixka, honek loratzen jarrai dezan eta kolore anitz izan ditzan!

Ah! Eta ea hurrena Euskal Herrian Euskaraz-en bilkuran elkar ikusten dugun! Hura ere xumea baina hunkigarria izaten baita.

Nire honetan
Joseba Orella

Ez naiz asaldatuko

Ez naiz asaldatuko, ez. Horretarako badugu-lako beste hainbat motibo. Baina harritu naiz; kezkatzen nau. Igoailuetako elkarrizketagai zena zenbait telebista kate publikoren irudi bihurtu delako. Ezaugarri salgarri: zalantza dut hego haize bolada txoro bat den, edo ekaitza luzaroan mantenduko den.

Bai, eguraldiaz ari natzazue. Zehazki esateko, ETBren azken trumoiak.

Garai batean albistegiak omen ziren kate bakoitzaren aurpegia; albistegien bitartez gizarteratzen zuten -saia-tzen ziren, behintzat- beren *sinesgarritasuna*. Albisteen galerna dela-eta, ordea, badi-rudi iparretik hegora aldatu dutela estrategia. Kirol gairak dosiarekin nahikoa ez, eta ez dira ba eguraldia saltzen hasi! Katearen promoziorako eguraldi tartea aurkeztuz; aurkezleak eguraldiaren entretenimenduaz jardunear.

Baietz, azkar baino lehen, berriz ere haizealdiren batek gogor jo ETBren etxea. Bada-tor *aldadenbora*, tenpora! Eguraldiaren mapa bera ere jarriko du dantzan, balantzan, haize boladak!

Barealdiaren ostean, ekaitza; badakizue. Behe-lainoak ba al du eskualderik? Eguzkiak lurraldetasunik? Bailarak lauso, herria blai... Orain ere, gurean tenpora, seguru!

Ez naiz asaldatuko, ez.

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerria ORIO

Tel: 618 561 388 - 859 218 221 e-posta: sbarranco@segurosibilbao.com

SEGUROS BILBAO

Grupo CATALANA OCCIDENTE

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 ORIO Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

PUBLIZITATEA

3. orritik dator

Kandida Arrutiri

Azken KARKARAKO zure gutuna irakurri ondoren azalpenak eman nahi nituzke:

Jakin ezazu, Pako Barjakoba joan zenetik David Uzkudun dela hondartzako ahateen eremua zaintzen duena. Davidek, gainera, musutruk egiten du lan, eta guk eskertu besterik ezin dugu egin urte hauetan egiten ari den lana.

Ahateen eremuak konponketaren bat behar badu Udalarena da ardura, eta gure lan zerrendan daukagun ekintzetako bat da Lan hori, horretarako ahalmena dugun bezain pronto egingo dugu. Udala, herritarren beharrez jabetuta dago eta horiei irtenbideak ematen dihardugu. ■ **Amaita Dorronsoro** Orioko Udaleko Obra eta Zerbitzu batzordeko burua

Esker ona babesleei...

Orio Arraunketa Elkarteko zuzendaritza taldeak Teknikazio Zentro berria erakutsi zien elkarteko babesle, bazki-

de-enpresa eta kolaboratzaileei joan den igandean. Guztira 90 lagun inguru elkartu ziren Teknikazio Zentro berrian eta Zuzendaritzako taldekoen gidaritzapean, instalazio berriko txoko guztiak ezagutu zituzten.

Ondoren, eguerdi aldera, Getariara joan ziren, bertan Ametztoi Txakolindegian bazkaldu zutelarik giro bikainean. Postreak eta kafea hartu ondoren, Orio Arraunketa Elkarteko lehendakariak, Ibon Huegunek, oroigarri bana banatu zien babesle, bazkide-enpresa eta kolaboratzaile guztiei.

Orio Arraunketa Elkarteko zuzendaritza taldeak, lerro hauen bitartez, bere esker ona adierazi nahi die elkarteari laguntza eskaintzen dieten guztiei, horiek gabe ez baitzen posible izango Orio A.E. dagoen lekuan egotea. ■ **OAE**

Jaiotza, kantu eta jantzien lehiaketa

Ikastolako pergolan abenduaren 28an, 17:00etan, izango da aurtengo jaiotza, kantu eta jantzi-lehiaketa. Polita izango litzateke abenduaren 24an, arratsalde-

an jaiotzarekin kalez kale ibiltzen diren taldeek bertan parte hartzea. ■ **Talai Mendietan M.E.**

Barkamen eske

Urriaren 20an, urtero bezala, Esperientzia Eskolako aurkezpena egin genuen. Hara, Udaleko agenteak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak gonbidatu genituen, eta noski, aurreko ikasturteko ikasleak, etab. Gerora ohartu ginuen talde garrantzitsu bat ahaztu zitzaigula ekitaldira gonbidatzea; Esperientzia Eskolan garrantzia handia duen elkarre bat. Gutun honen bidez Esperientzia Eskolako koordinatzaileek eta arduradunek barkamena eskatu nahi diogu Farfara elkarteari. Jakin, beraiek gabe, ez litzatekeela posible izango, gaur egun, Esperientzia Eskola izatea herrian. Beraz, barkatu aurtengo inauguraziora ez gonbidatu izana eta jakin ezazue Esperientzia Eskolak zuek aintzat hartzen jarraitu nahi duela aurrerantzean ere. ■ **Ainara Tomasa, Aitziber Indart, Garazi Elortza.** Ingema

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 63 38 75

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK
WWW.IGLESIASCERRAJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajeros@yahoo.es
2010 ORO

- ATSEK IRKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATSEK IXTERO MALUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

24 ORDUNO ZERBITZUA

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU OFIZIALA

TRABAJU, ENTRAQUE eta IGURTIAK ZUGA

ZARAUTZ. TEL. 943 13 13 50

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 63 59 00

Igo zaitez haize berrietara!

Galerña

943890416 - 677149934
galerna.orio@halmail.com

BARAKA
ostilo berria

Ogitalerakoak
Erretorikak
Haber konbinatuak
Txoko jantaria

945 15 15 18
Aitor

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lego aholkularitza

- ENPLAZAMENEN AROZKARITZA
- ENPLAZAMENEN PERZENA
- ENPLAZAMENEN JURISDIZIA
- ENPLAZAMENEN MANTENIMENDUA
- ENPLAZAMENEN BERTSULAK
- BILAKETA ETXEN NEURTETAN BARRERA

Zuzen Martinekorenak
n. 424170925

Berme (Bizkaia)
2012ko 12ko 15ean
n. 943 15 15 18
www.bermeaholkularitza.com

b

Carmen eta Txomin
ARRANDECIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gaia emanda Erronka apustuarekin ala apusturik gabe

Apusturako ohitura handia izan da betidanik gurean; belaunaldiz-belaunaldi, batetik bestera bizirik eutsi zaion usadio zaharra dugu. Batez ere herri-kirolei lotuta, azken urteotan baina, eskuz kontatzeko adina apustu edo kontrafabore egin izan dira.

'Eztek potroik!'

Herri kirol zale gehientsuen antzera, ni neu ere apustuzale edo apustuen aldekoa naizela aitortu beharra daukat. Izan ere, batetik bat herri kirolarentzat, urte askoan zehar, apustua –*kontrafaborea*– izan da eta lehiaketarako modu bakarra. Ospe handikoak bezain jendetsuak izan ohi ziren garai bateko kirolarien nahiz animalien arteko norgehiagoka gogoangarri haiek.

Horren adibide garbi bat litzateke jarrera aipatzen dizuedana: 1978ko martxoaren 5ean, Tolosako zezen plazan, Agustin Ostolazaren eta Iñaki Perurenaren arteko harri jasotze apustua ikus-tera bildu ziren 5.000 ikusletik gora. Handik urte batera, Ostolazak berak Iraolaren aurka jokatu tako apustuan elkartu ziren 2.500 inguru ikusle eta herri-kirolzale.

Gauregun, txapelketa, erakustaldi edo errekor saiakerak ohikoagoak izan arren, badira oraindik apustuzale amorratuak diren kirolariak ere. Horietatik

nabarmendu nahi nituzke, alde batetik, hainbat eta hainbat harri-jasotze apustu egingako Joxe Ramon Iruretagoiena –*Izeta II*– eta herri kiroleko modalitate gehienetan apustu asko eta asko egin dituen Joxe Mari Olasagasti aizkolaria –azken honek gaur egun ere hitzartua dauka bi aizkolaria gazteen aurkako erronka–.

Animaliei dagokienez, berriz, aipatzeko modukoa da nola bildu ziren, duela urte gutxi, 1.200 bat ikusle herri-kirolzale Aitor Olarrearen *Lambru* zaldiak Urkiagaren *Perla* behorraren aurka jokatu-

Jendearen iritzia sarritan kontrakoa izaten den arren, jokatu ditudan apustu guztietan, aurkariarekin lehen baino harreman hobea izaten bukatu dut

riko apustuaz gozatzeko. Aiako probalekuan izan zen hartan lehia.

Nire esperientzia pertsonalari dagokionez, harri-jasotzaile bezala ez nuen apusturik jokatzeko aukerarik izan; baina idiekin bai; izan dut dozena batetan edo aritzeko parada. Esan beharrean nago txapelketekin, orokorrean, alderatuz, sentsazioak eta bizipenak oso ezberdinak eta bestelakoak izan ditudala, nahiz eta oraintxe bertan horiek nola adierazi ez jakin.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, nahiz eta jendearen iritzia sarritan kontrakoa izan ohi den, jokatu ditudan apustu guzti-guztietan, aurkariarekin aurretik nuena baino harreman hobea izaten bukatu dudala erronkaren ondoren.

Azkenik, bukatzeko, bada aipagarria iruditzen zaidan datu bat: ezagutu ditudan apustu guztiak gizonezkoen artekoak izan dira. Eta hortxe nire hurrengo galdera: Noizko? Ezten...

Iñaki Oñden

Itzaina

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

edartegia
ANTILLA
jateketa

Mirastart kalea, 2 - TEL. 943 83 23 00

Kinkladenda- Ume arropa
argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskeogia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Gordo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua@debezuaz.pe@allianz.es



Mikel Markez eta Pako Aristi liburua Donostiako Elkarren aurkeztu zutenean. OIHANA OTAEGI - ELKAR

Lehertxunditurik geratzeko modukoa

Kritika Plazer bat izan duk, Benito!

Idazleak: Pako Aristi eta Mikel Markez. Debako udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako 2012ko Tene Mujika bekaren irabazleak.

Joxerra Gartzia irapur-tuko diot Anduri buruz erabilitako adiera bat: *Lehertxunditurik!* Hoxe utzi nau ni ere Benitoren bizipen, gogoeta eta abar biltzen dituen liburuak. Benitoren jakinduriaren ezagutzan dugu irakurleok, beste behin.

Naturaren, oroaren parte garela egiten du aldarr! Norbere baitan lekutzen dira as-

katasuna, bakea, jakinduria, maitasuna, egia... eta elkarrekin harremanetan daude halabarrez.

Barrurako begirada horri berebiziko garrantzia ematen dio kontzientziaren loratzerik emango bada. Horretarako, domestikaturako sinesmen kultural, erlijioso, ideologiko eta semantikoen eragin biluzte, desikaste bat aholkatzen du.

Zuhaitz baten pare irudikatzen gaitu. Datorrenari ez dio erresistentziarik jartzen. Zuhaitzak badu nahikoa jakinduria. Eurite, lehorte, hego haize, elurte eta abarren aurrean existentziaren interpretazio propio bat egiteari

jartzen dio arreta biziko bada, orain eta hemen. Natura da eta berez daki.

Askatasuna, dogma, kantagintza, pentsamendua, erregresioak, nitasuna, izatea, herria, bizitza, arrauna, kultura, biolentzia, bezalako kontzeptuei eta formei aurrez aurre begiratzen die eta beren esanahiaren muinera, sakonera jotzen du, berezko zaion isuri benetakotik ziprizzintzen gaituelarik!

Horrenbestez, gonbidatuak zaudete irakurtzera. Nik, Krishnamurtiri helduko diot!

IBAI ESRAIN

Ikasleak idazle
Jairo Torres

Helduak ulertu ezinda

Ni askotan bizikletan ibiltzen naiz. Hondartzara joateko, lagunekin gelditzeko... bizikleta erabiltzen dut, eta, behin baino gehiagotan, pertsona helduen haserrea jasan behar izan dut.

Aurtengo udaran, lagunekin hondartzara joateko gelditu ginen batean, plazan elkartu eta gizon batek bizikletak errepidetik ibili behar zutela esan zigun. Kaso egin genion, eta errepidetik joaten hasi ginen. Bidean, atzetik zetorren autoak, bide-gorritik joateko oihera egin zigun, beraz, autopistako zubi azpian bidegorria hartu, eta hondartzara iritsi ginen.

Bueltan, bide-gorritik gertozela, bidea bukatu eta espaloira igo ginen, baina gizon batzuk, norbait harrapatuko genuela eta, errepidetik joateko esan ziguten. Berriz errepidea hartu, eta beste auto gidari batek bide-gorritik joateko agindu zigun.

Baina nola? Han ez zegoen bidegorriarik eta! Horregatik, bidegorria herriko toki guztietara luzatzea proposatzen dut.

Baina nola?

Han ez zegoen bidegorriarik eta!

PIZZERIA
KALETA
ARRANTZALE MALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

tailer mekanikoa
AUTO-LAN
C. B.
urrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura
Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

» OSPAKIZUNA



Zorionak bikote!

Arantxa eta Richard ezkondu ondoren, familiakoekin egin zuten ospakizuna bazkari baten bueltan. Etxekoek, hain zuzen ere, bikotea zoriondu eta eskerrak eman nahi dizkiete eskainitako jai egun politarengatik. Aurretzean ere orain arte bezain pozik bizi daitezela opatuz eta hurrena ere senide artean bat egingo dutelakoan, muxu handi bana familiakoekin partetik.

» HANDIK ETA HEMENDIK

“Herrian oso ondo hartu gaituzte. Emakumezkoen taldea sortzeak ez ditu herritarrak harritu; beste urrats bat izan da ibilbide horretan.”

Idoia Etxeberria. Nesken giza-proba taldeko kidea. Sasoiari, 2012ko abenduak zerbaiten.

“Egokia iruditu zitzaigun azoka Gabonak baino lehen egitea, herritarrek elkartrukean hartutako jostailua horiek opari bezala erabil ditzaten.”

Eneritz Odriozola. Herriko Natur Taldeko kidea. Urola Kostako Hitza, 2012ko azaroaren 30ean.

» ZORITXARRAK!

Auto gidari buru-arinei

Sanikolasetan auto gidari askok *arazoak*, eta ez nolana hikoak, izan dituzte beren ibilgailuak errepidetik xuxen-xuxen eramateko. Istripu ugari izan dira aurtengoan; hiru oso deigarriak gainera. Juxtu-juxtuan, zauriturik gabe, zorionez.

Lehena Balea kalean gertatu zen abenduaren 7ko goize-

an, 11:00k aldera: kotxe bat espaloira igo eta farola eta lorontzia bota zituen, arropa dendaren atarian geratuz. Ihes egiten saiatzeaz gain, ia emakume bat harrapatu zuen gainera. Bigarrena eliza inguruan gertatu zen. Zakilareneko aldapatik Norteko Iturrira bidean jarri zen beste automobil bat, goitik behera, eta erdiko baranda bota zuen. Azkenak, festak *ondo* bukatzeko, txosna jo zuen, egitura guztiz desitxuratuz.

Kontu gehiago izan behar da errepidean!

Jai berrientzako behar duzun guztia

OSTA MENDI TEKNIKAK

Bezero teartelarekin zerbait abantailak Eskaintza bereziak

Haur kotxeak, pasoko aukiak, sehaiek, tronak, autorako aukiak...

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500 m²-an

Esna, 51 - DONOSTIA - 943 470 244

Atariak, 3 - IRUN - 943 638 223

www.maxibebe.org maxibebe

www.fotoramiro.com

RAMIRO
argazkiak

610 69 76 68
943 83 10 48

Gabonetako
promozio berezia:
Estudioko 3 argazki
15x20 zm, 60 euro

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Akloroko zerbitzua
* Belatorio gela
* Koroiak, eskelek, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 48 37 / Fax: 943 89 48 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Ara Lezundi, 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

Gabon
TABERNA

Plater kordinak eta pintxoak

Tfnua: 943 83 06 09

EZPALAK



Gabon eguneko gazte kantariak, txistulari eta guzti. ARTXIBOA

Gabon Egunean trenean

Oroimenaren kutxa

A benduaren 24a da, Gabon Eguna, arratsaldeko trenean nator, Donostiatik bueltan, etxera. Trena gainezka dator, jendez eta paketez beteta. Baina inork ez du aurpegi txarrik estu goazelako, denak pozik daude.

Oriora iritsi gara. Iluntzen hasita dago. Bat-batean erabat isildu da tren osoa, aurreko makinatik azken bagoiraino. Bidaiariok, zirrarak jota, elkarri begira gaude. Doinu zoragarri bat datorkigu non-baitetik. Koru baten ahots guztiz afinatuen armoniak harrapatu gaitu. Jendea

leihotik begira, 50 bat neska-mutilez osatutako gaztetxo koadrila ikusi dugu, denak kantari, trenbide ondoan.

Artzai buru txuri bi, Antton eta Peru, Belengo portalera etorri zaizkigu...

Non daude baina treneko bidaiari oraintsu arte berri-tsu eta builosoak? Denak isilik, kantu apalaren hitzak dastatzen. Haurrentzako gabon kantuaren indar magikoa. Seguru kantua egin zue-na ere haur bihurtu zela orduan. Erabateko txirotasunean jaiotako Jesus haurrari egindako maitasun kantua zainetaraino sartu zaigu, haurtzarora eraman gaitu eta trena isildu egin du oso-osorik.

Sartu dira barrena Manuel-txogana, eskaintzera biho-

tzez, arkumetxo bana.

Estazioko jefearen txistuak esnatu gaitu. Trenak arrankatu egin du. Orioko gazteek kantari segitzen dute. Bidaiari batek hautsi du isiltasuna: *bai polita! Polita, bai!* erantzun diogu aho batez.

Jose Artetxe idazle azpeitiarraren hitzak dira. 1945 inguruko Gabon Egun hartako koruan izango ziren, noski, aurtengo Gabon Egunean kalez kale kantuan ibiliko diren aiton-amonak:

Ai hau gauaren zoragarria, Jesus jai da Belenen, herririk herri bila gabiltza, bila gabiltza beraren...

*Artetxeren *Mi viaje diario* (1950) liburutik euskaratua.

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

■ Iraide Uranga Parra, Orion, abenduaren 13an.

» EZKONDUTAKOAK

■ Ez da ezkontzarik egon.

» HILDAKOAK

■ Martin Arruti Arruti, Orion, abenduaren 17an. 59 urte.

■ Fernanda Palomo de la Vallina, Orion, abenduaren 12an. 94. urte

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



KOLON TXIKI
 edurtasun
 jabetza

Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Sagasti
 LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
 Tf / fax: 943 13 00 77
 sagastileihoak@telefonica.net
 Arrantzale kalea, 65
 20810 Orrio (Gipuzkoa)

LURDES
 ARKOLDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

“Haurdunaldi naturala ez da erraza, baina teknikek ere ez dute ziurtatzen”

Mikal Etxeberria eta Jakes Goikoetxea

Peru Goikoetxea Etxeberriaren gurasoak

Donostia Ospitaleko Ugalketa Lagunduko Unitatean, *in vitro* bidez jaiotako lehen umea da Peru Goikoetxea Etxeberria. Berak jakin ez arren, gurasoak askotan saiatu dira umea mundura ekartzen eta bide luze eta gogor horren berri eman digute.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Haurdunaldi naturala izan zuten lehena Mikalek eta Jakesek, baina zazpigarren hilabetean galdu zuten haurra. Geroztik ez zuten era horretan haurdun geratzetik lortu eta ospitalean laguntza jasota, hiru urteren ondoren jaio da Peru.

Jaiotza mediatikoa izan da Perurena.

Jakes: Umeak egunero jaiotzen dira baita *in vitro* bidez ere, baina gurea berezia izan da Donostiako unitatea martxan jarri zenetik jaio den aurrenekoa delako. Guk medioetan ateratzea erabaki genuen ospitalari eskerrak emateko eta gaia naturaltasunez azaltzeko.

Mikal: Jende askok gaia diskrezioz eraman nahi du. Badirudi lotsatu egiten direla eta gordetzea zilegi da, jakina.

J: Umeak izatearen inguruan bada

uste bat: edonor haurdun geratu daitekeela nahi duenean; baina errealitatea ez da horrelakoa. Baliteke bi urtez saiatzea eta ez lortzea. Kasu batzuetan errealitate dramatiko edo gordinagoak daude. Urrutira joan gabe, askok egin dituzte tratamenduak; ez da hain arraroa.

Prozesua luze joan da. Nola erabaki zenuen *in vitro* metodoari heltzea?

M: Duela urte batzuk, segituan gelditu nintzen haurdun modu naturalean eta berez ez geneukan arazorik, baina ginekologoak esan zidan urtebetean normala zela berriz haurdun ez gelditzea. Protokoloak daude, baina trauma bizi izan duen bikotea izanik, aurreratu egin zizkiguten tratamendu aurreko probak.

J: Gidatutako harremanak izan eta hiru saiakerek huts egin zuten. Gero in-tseminazio artifizialarekin egin genuen

saiakera eta horrela ere lortu ez genuenez, *in vitro* ra jo genuen.

M: Ospitaleko prozesua jarraia izan arren, *in vitro* rako Gurutzetako ospitale-ra bidali gintuzten. Urte eta erdikoaren itxaron zerrenda. Ospitale pribatuan batean saiatu ginen. Donostiakoa martxan jarri zenean, hara bideratu eta berehala hartu gintuzten. Analiak eginda genituen eta segituan hasi ginen ziztadekin.

Gogorra izan da, beraz, prozesua.

J: Umea eduki nahi eta ezin dutenentzat frustrazioz betetako bidea da. Hilero saiatu eta lortu ezean, pilatu egiten dira nekea, etsipena... Gure kasuan beste karga bat zegoen: aurrez umea galdu izana. Lehen urratsa haurdun gelditzea zen eta hori beteta, aurreko haurra etortzen zitzaigun gogora. 7 hilabeteko muga pasata, gutxi falta dela-eta, gora egiten du urduritasunak. Mikalek izan du pisu gehien; babes eta animo lana egin dut nik.

“Umeak izatearen inguruan bada uste bat: edonor haurdun geratu daitekeela nahi duenean; baina errealitatea ez da horrela.”

“Umea eduki nahi eta ezin dutenentzat frustrazioz betetako prozesua da. Saiatu eta lortu ezean, pilatu egiten dira nekea, etsipena...”

M: Arazo fisikoren bat izan bagenu tratamenduaren aurreko hilabeteak lasaiago igaroko genituen agian, gure kabuz ez ginela haurdun geldituko pentsatuta. Ez da gure kasua izan; ni oso gaizki nengoan; ezin nuen hilabete utzi saiatu gabe. Psikologikoki izan da gogorra.

Peru jaio zenean?

M: Guretzat sekulako poza izan da, baita etxe koentzat ere, noski; eta herrian ere berotasuna sumatu dugu. Izan da emozionatu dela esan digunik ere.

J: Ospitalekoak ere poztu dira. Gu ez gara izan tratamendua jaso dugun lehena, baina lasaitasuna izan da lehena jaio dela ikusi eta hurrengoak etorriko direla pentsatzea. Haurdunaldi naturala lortzea ez da erraza, baina teknikek erabiliz egiteak ere ez du ziurtatzen. Ospitalean ez dugu espediente huts bat izatearen sentsazioa eduki, gauzak garbi esan dizkigute eta behar denean, goxo.



KARKARA

» AGENDA

Orio

Kultur Etxea

■ Abenduaren 21etik urtarrilaren 7ra bitartean, 09:00etatik 13:00etara egongo da irekita, arratsaldez itxita. Abenduareb 25ean eta urtarrilaren 1ean egun osorako itxiko dute.

Informatika

■ Abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilaren 2,3 eta 4an. Dantza, gimnasia eta jolas ikastaroa. 35 euro. 10:00etatik 12:00etara. Kosta tailerlean. Izena emateko: 637 256 851 (Warda Mallal) edo uarda@hotmail.es

Traste zaharrak

■ Abenduaren 27an. Traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Trasteak atera aurretik udaletxera deitu behar da zer aterako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Informatika

■ Abenduko azken astean eta urtarrileko lehenengoan KZ gunea arratsaldez itxita egongo da. Urtarrilean begiralea eguneroko goizetan.

KZ gunearen ohiko ordutegia:

09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Orioko Kultur Etxean.

■ Urtarrilaren 7tik 18ra.

Oinarrizko Internet KZ gunea ikastaroa euskaraz. 20 ordu.

11:00etatik 13:00etara,

KZ gunean.

■ Urtarrilaren 9an.

Gmail ikastaroa euskaraz.

09:00etatik 11:00etara,

KZ gunean.

■ Urtarrilaren 8an eta 11n.

IT txartela lortzeko azterketa.

09:00etatik 11:00etara,

KZ gunean.

Bingoa

■ Urtarrilaren 9an. Zaharren

Babeslekuak antolatutako

bingo saioa. 16:30etik

18:30era, Kultur Etxean.

Zaintzako botikak

■ Abenduaren 21ean, Lasa;

22an eta 23an, Zulaika;

24an eta 25ean, Mutiozabal;

26an, Zulaika; 27an, Iriarte;

28an, Larrañaga; 29an eta

30ean, Mutiozabal; 31n eta

urtarrilaren 1ean, Azaldegi;

urtarrilaren 2an, Iriarte; 3an,

Larrañaga; 4an, Mutiozabal;

5ean eta 6an, Iriarte;

7an, Zulaika; 8an, Iriarte;

9an Larrañaga;

10ean, Mutiozabal; 11n Lasa

Aia

Gabonak Andatzen

■ Abenduaren 21ean umeen ekitaldia. 11:30ean, eskolan; ondoren taloak eta txistorra denentzat, frontoian.

■ Abenduaren 24an, baserri baserri kantuan, 09:00etan hasita. Olentzeroren bisita haurren eskutitzak jasotzeko, 14:30a kinguruan.

Olentzero

■ Abenduaren 21ean. Olentzeroren etorrera eta ondoren txokolatada. 17:00etan, herriko plazan.

Erromeriak

■ Abenduaren 23an, Ostolaza eta Pujana trikitilariekin erromeria; abenduaren 30ean, Astiazaran II.a eta Lutxurdiorekin; eta urtarrilaren 6an, Kupela taldearekin. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aris-terrazu plazan.

Zinema

■ Abenduaren 23an, *Ice Age 4* eta *Casi 300*; abenduaren 26an *Brave* eta *El Dictador*; urtarrilaren 2an, *El gato con botas* eta *Scream 3*. Kultur Etxean.

Kultur Etxea

■ Abenduaren 24tik 28ra, goizez, 09:00etatik 12:30era egongo da irekita, arratsaldez itxita. Hilaren 25ean egun osoz itxita egongo da. Gainontzean, Kultur Etxea itxita egongo da urtarrilaren 7ra bitartean.

Kantua

■ Abenduaren 24an. Gabon eskea. 09:00etan eta 17:30ean.

Silo-Bolak

■ Abenduaren 27an, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

Kirola

■ Abenduaren 31n. San Silbestre lasterketa. 17:00etan, herrian barrena.

Musika

■ Urtarrilaren 3an. *Xurdir Gabonetako kontzertua* haurrentzako ikuskizuna. 17:00etan, frontoian. Sarrerak: 4 euro aldeztu aurretik. Iturriozena tabernan hartuz gero; 5 euro egun berean frontoian erosita. Urtebetetik gorakoek ordaindu egin behar dute. Ondoren, Bizarzuriren etorrera..

tel/fax: 943 89 00 69
Buztetok: 4 3380 ZARAUTZ



URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Karu MORIA

ESTROPALARI, 10
20110 ORIO
tel. 943 11 66 99
LARRIATION
605 67 64 99

MIRANDA

tarina, abo, leño, eskafera...
behar diren azote lanak
egungo diruzagun

Urdazeta bidea, 1 4650 42 32 70 - ZARAUTZ

He apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

FISIOTERAPIA Gertokiz Analegi eta Naldia Wernowen
NUTRIZIONISTA Gertokiz Alburuzi

sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

PERTSIANAK

A
K
O

M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

URANGA

burdindegia

Opati, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Rosana Arruti

Argazki Estudioa

***Fotokopiak koloretan**
(usb, memoria edo email bidez)

***Plastifikazio eta enkoadernaketak.**

***Argazki, eskola, ofizina, ...
materiala.**

***Argazkien errebelaketa momentuan.**

***Argazki kamarak.**

***NAN-erako argazkiak.**

% 10 deskontua paper materialean
Urtarrilak 6-arte.

***Argazki erreportajea**

Gabon egunean egun osoan irekita.
Etorri estudioara baserritarrez jantzita




Ez galdu zure oroitzapenak, bildu denak Album digital batean.
Deskargatu programa duan
www.hofmann.es
kodea: 340738 **Hofmann**

Aita Lertxundi 26 -Orio- fotorosanaarruti@gmail.com -Telf: 943 835845

agirresarobe

PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
ISGASAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIDAK, ... |

ITURRIBIDE 8, S. BULEGODA, ZARAUTZ
SORJA AGIRRESAROBEBE, ARKITEKTOA 635 731722

943 572 870



KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

ITZIAR

kirolak



Tel. 943 83 31 03

KAIUA



Paraje natural pribilegiatu batean, Oria ibaiaren ertzean,
Motondo eta arraun klubaren parean...

Gozatu gure aukeraz:

- Salda bero beroa
- Bokadilloak
- Plater konbinatuak
- Pintxoak
- Txokolate bero beroa
- Gosariak

Anibarko portua 35, **Tf.: 943 840 060**

GABONAK 2012



ABENDUAK 15, LARUNBATA

10:30-13:30 eta 15:30-18:00 Jostailu erabilien azoka plazan Herri Natur taldeak antolatuta.

ABENDUAK 16, IGANDEA

09:00 Iriteera Urdaibaiko Biosferaren Erreserbara. Iriteerak 20 euro balio du eta prezio horren baruan sartuta dago: joan-etorria, bisita gidatua eta bazkaria. Izena emateko, jo Uranga burdindegira abenduaren 14a baino lehen.

11:00 Herri lasterketa 7/14 km, Ikastolak antolatuta.

ABENDUAK 18, ASTEARTEA

17:30 'Seme-alaba euskaldun eta euskaltzaleak, laguntzeko prest?' hitzaldia kultur etxean, Zaragueta eskola antolatuta. Hizlaria: Iñaki Eizmendi gizarte hezitzailea.

ABENDUAK 19, ASTEAZKENA

17:30 Danbolin musika eskolak kontzertua eskainiko du elizan. Tailerreko ikasleak eta instrumentuko ikasle bikiak parte hartuko dute.

19:00 '¿Cómo ayudarles en las tareas escolares si no sabemos euskera?' hitzaldia kultur etxean. Hitzaldiak guraso ez-euskaldunei lan-tresna praktikoak eskaintzea izango du helburu. Hizlaria: Iñaki Eizmendi.

20:00 Salabo eta Danbolinen Gabonetako kontzertua elizan. Salatxok ondoan izango ditu Danbolineko soka taldea, kantuko ikasleak eta musika mintzarako 2., 3. eta 4. mailako taldeak.

ABENDUAK 21, OSTIRALA

17:00 Dantza modernoa eta sabel dantza kultur etxean

19:00 Kabaigatarako izen-ematea ikastolako pergolan.

ABENDUAK 22, LARUNBATA

10:00 Santioko padurak eta Motondo ikustera irteera herriko plazatik eta ondoren, tailerra kultur etxean. Gida-lanak eta tailerra zuzentzeko lanak Marko Sierra Aranzadiko kideak egingo ditu.

16:30-20:00 Mandala tailerrak 4 urteik gorako umeentzat kultur etxean.

ABENDUAK 24, ASTELEHENA

10:45 Haurren kalez kaleko saloa. Ikastolako, eskola-ko, Danbolin Musika Eskolako haur, irakasle eta gurasoak kantari arituko dira kalez kale, Ikastola ondoko plazan hasita.

OHARRA: Kultur etxea eta liburategia 9:00etatik 13:00etara irekiko dira abenduaren 28tik urtarraren 4ra, eta arratsaldez itxia izango dira.

11:00 Tonbola plazan, Ikastolako DBHko ikasleek antolatuta.

17:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, Arkupe, Txurrumuski, Orioko Herri Ikastola, Zaragueta eskola, Egunsenti otxotea, ttunturro taldea eta Udalaren eskutik.

ABENDUAK 26, ASTEAZKENA

17:00 Kandela tailerra Mandalara taldearen eskutik plazan.

17:00 Bikokote antzerkia, Ibai Escoin eta Garazi Urretabizkaiaren eskutik, kultur etxean, Arkupe elkarteak antolatuta.

ABENDUAK 28, OSTIRALA

17:00 Kantu, jantzi eta jaiotza lehiaketa, Ikastolako pergolan Talai-Mendik eta Orioko Herri Ikastolak antolatuta.

18:00 Gaztaina jana, Talai-Mendik eta Orioko Herri Ikastolak antolatuta.

22:00 Herribil emanaldia, Herribil dantza taldea gidari dela.

ABENDUAK 31, ASTELEHENA

12:00 San Silbestre lasterketa, Ikastola aurretik abiatuta. Izen ematea, Karela kiroldegian.

URTARRILAK 2, ASTEAZKENA

11:00-13:30 eta 16:00-19:00 Gabonetako haur parkea, Karela kiroldegian.

URTARRILAK 4, OSTIRALA

19:00 'Zaintzailearen rola' hitzaldia, Mandalara taldearen eskutik kultur etxean.

URTARRILAK 5, LARUNBATA

11:00 Erregeen karterua. Bizarzuri kalez kale ibiliko da, gutunak jasotzen. Eguerdian plazara iritsiko da.

18:00 Erregeen kabalgata. Talai-Mendik antolatuta, Erregeen kabalgata egingo da herrian barrena.

